

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Larrabetzu



Aurkibidea

Udalerria: Larrabetzu

Sarrera



Larrabetzu Bizkaiko erdialdean dagoen udalerria da, Txorierriko eskualdean biztanleria txikiena duena, 2.000 biztanle baino gutxiagorekin, bai eta ekialderago dagoena ere. Mugakide hauexek ditu: Iparraldean Morga, hegoaldean Galdakao, ekialdean Zornotza eta mendebaldean Lezama.

- **Biztanleak:** 1.663
- **Euskaldunak:** -

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **10**
- Zintak: **8**
- Pasarteak: **88**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **43**
- Bideoak: **45**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Fondo partikularrak
- IRALE
- IRALEren Bizkaiera Bilduma

Hizlariak

Cresen Bustinza Etxeandia (1916)



Lezamako Garaiortza auzoko Zugastiene baserrian sortu zen 8 neba-arrebatako familia batean. Aita bertakoa zuen eta ama Zamudiokoa. 13 urtera arte Lezamako eskola ibili ostean neskame lanetan hasi zen. Etxe eta familia desberdinetan aritu ostean, azken urteak maistra batekin pasatu zituen. 1938. urtean Larrabetzura etorri zen maistra horregaz batera. Gerran ez zuen liskar askorik barrundatu, Lezama aldean ez zuelako ondorio askorik izan; nazionalek Bilbo hartu zutenean bera bertan egon zen. Larrabetzura etorri ostean, bertako batekin ezkondu zen Sarrikola auzoko Sarri etxera. 6 seme-alaba izan zituen.

Maria Elozegi

Teresin Jauregi Mintegi (1924-1999)

Andramari kalean jaio zen. Aita, Nikolas, Etxebarrikoa zuen eta ama, Rita, Larrabetzuko.

Maria Lekerika Dañobeitia (1917)

Larrabetzuko Goikolexea auzokoa. Gurasoak ere Larrabetzukoak ziren. Basaurira ezkondu zen. [Basauriko euskararen azterketa linguistikoa](#) lanean parte hartu zueneko da grabazio hau.



Kresen Loroño

Fausta Justa Maza Artetxe (1920)

Maria Angeles Olaldekoa

Mari Tere Onaindia Jaio (1936)

Ziortzan jaio zen, baina Larrabetzun bizi izan da. [Miren Uriarte](#) rekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Juan Otxandio



Usansolon jaioa, zazpi urterako artzain ibilitakoa da Juan. Basoan lanean gazterik hasi zen eta gero, berrogei urtean gidari lanetan jardun du. Albokak egiten badaki eta jotzen ere bai.

Miren Uriarte Loroño (1926-2011)



Errementerien jaio zen eta Bersoa auzoan bizi izan da. Auzoko mutilarekin ezkondu zen eta sei seme-alaba izan ditu.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Zein garrantzi dauka Larrabetzuko elizak? (LAR-001/002)

Eliza ohiturak Larrabetzun.

2. Garia ereiteko abestia (LAR-001/003)

Gariaren garaian abestutakoak.

3. Kukuena habiari buruzko abestia (LAR-001/004)

Kukuak habia egiten zueneko abestia.

4. Peru zapateroren inguruko kanta (LAR-001/006)

Peru zapateroren inguruko kanta.

5. Patxi Baztarretzeko (LAR-001/007)

Norbaitek lapurtuz gero abesten zuten.

6. Haur jolas kantuak (LAR-001/008)

Zotz egiteko kanta, besteak beste.

7. Gabonetako kantuak (LAR-001/009)

Maistrak erakutsitako gabon kanta.

8. Eskola frankistaren gehiegikeriak (LAR-005/002)

Zazpi urtetik hamalaura arte ibili ziren eskolan miren eta gerraren ondorioz, izena erdaratu zioten. Oinarrizkoa ikasi zutela diote. Seme-alabekin ikasi zuten gero. Irakasle burgostarra izan zuten, frankista. "Cara al Sol" eta antzekoak abestu eragiten zizkieten.

9. Gerratik ihesi gurdiak eta abereak hartuta (LAR-005/003)

Zazpi urte orduko, artzain joaten zen basora. Gerra hasi zenean, gurdiak hartu eta ihesi joan ziren. Pasarte bat kontatzen du, etxera itzuli zirenekoa. Pinuak botatzen ibiltzen zen Juan trontzarekin, oso gazte zela.

10. Alboka jolea eta egilea (LAR-005/006)

Juanek albokak egiten ditu eta jo ere egiten du. Basoan beste batzuek ikusita ikasi zuen.

11. Alboka afinatu, jo eta kantuan (LAR-005/008)

Alboka jotzen saiatzen dira elkarrizketatzaileak. Leon Bilbaori buruz berba egiten du. Alboka afinatu eta jotzen du, baita kantatu ere.

12. Alboka, artzainen aspaldiko musika tresna (LAR-005/009)

Kainaberarekin txistuak egiten zituzten umetan. Alboka afinatzen saiatzen da Juan. Alboka panderoarekin jotzen zuten. Artzainen musika tresna dela dio.

13. Emakumeak sorginez mozorrotuta (LAR-005/011)

Juanek pasarte bat kontatzen du, azalduz zela mozorrotzen ziren emazteak sorginez senarra ikaratzeko.

14. Sorgina esaten zioten neskarena (LAR-005/012)

Juanek pasarte bat kontatzen du, itsua zen neska bat sorgina zela esaten zutenekoa. Aztia izango zela dio Mirenek.

15. Sorgina zelakoan, eskalea (LAR-005/013)

Auzoko andre bati gertatutakoa kontatzen du Mirenek, sorgina zelakoan, eskale bat ikusi zuenekoa.

16. Hitanoa, lehen gehiago (LAR-005/015)

Hitanoz berba egiten dute hiruen artean. Lehen gehiago egiten zutela dio. Nagusiei berori egiten zien Juanek.

17. Erromerietako gaiztakeriak (LAR-005/016)

Larrabetzun, kalean, euskara asko galdu dela dio Mirenek. Basoko erromeriak oso politak zirela dio Juanek. Nondik nora ibiltzen ziren kontatzen du. Gaiztakeriak kontatzen ditu Juanek.

18. Erromeriara joateko ilusioa (LAR-005/018)

Juanek bere gaztetako ibilerak kontatzen ditu; erromerizalea zen.

19. Amari gezurra esanda, erromeriara (LAR-005/020)

Bizkargiko erromeriara amak joaten laga ez, eta beste erromeria batera joan zirenekoa kontatzen du Mirenek.

20. Larrabetzuko lapurrarenak (LAR-005/023)

Larrabetzuko lapurraren istorioak kontatzen dituzte.

21. Bertsolariak balkoitik balkoira (LAR-005/025)

Lehen gertaerak jakiten zirela diote, baina orain baino beranduago. Balkoitik balkoira bi bertsolariren jarduna zelakoa izan zen kontatzen dute.

22. "Bakotxa eta trokotxa"ren ipuina (LAR-005/026)

Bakotxa eta trokotxaren ipuina kontatzen du Mirenek.

23. "Apaiza, Maria eta bere senarra"ren ipuina (LAR-005/027)

Baserri baten paretik pasatzen zen apaiz bati buruzko pasartea kontatzen du Juanek.

24. Andabideak eta eskubideak (LAR-005/030)

Andabidea gorpuak eramateko bideak izaten ziren. Bideei eta eskubideei buruzko azalpenak ematen dituzte.

25. Lursailen mugak (LAR-005/031)

Errietabaso toponimoaren azalpena ematen du Mirenek. Lursailen trukeei eta herrien mugei buruz berba egiten dute.

26. Emakumeei fama txarra erraz (LAR-005/032)

Mirenek kontatzen du erromerian dantzan ibiltzen zirela, eta egarria izanda ere, dantzan jarraitzen zutela. Emakumeei fama txarra erraz ematen zitzaizela diote. Dantza ukatzea ez zutela ondo hartzen mutilek dio Mirenek.

27. Euskal telebistari kritika (LAR-005/036)

Euskal herriaren historiaren eta euskararen berri gehiago eman beharko lukeela euskal telebistak, uste du Mirenek. Kritika zorrotza egiten du.

28. Euskal telebistari buruz eztabaidan (LAR-005/037)

Euskal telebistari buruz eztabaidatzen dute.

29. San Juan bezperako ohiturak eta kantua (LAR-005/038)

San Juan bezperako eta eguneko ohiturak eta zentzua zein diren kontatzen dute. Mirenek kantua abesten du.

30. "Ababatxue lo tirintaiñe" lo-kanta (LAR-005/040)

Lo-kanta abesten du Mirenek. "Ababatxue lo tirintaiñe, ez egin lorik basoan, otsoren batek jan ez egizan, bildotsa zarealakoan".

31. "Lepoan zakue" lo-kanta (LAR-005/041)

Lo-kanta abesten su Kresenek. "Lepoan zakue eta, zakuek ziloa, handixik agiri deu Karada kojima".

32. "Ababatxue lo" lo-kanta (LAR-005/042)

Lo-kanta abesten du Juanek, pasarte barregarriarekin batuz. "Ababatxue lo ta lotan, gaur zuaz ta biger erdu; ondoan dagoan papaua baino, maiteago zaitut zu".

33. "Arakanatan" koplak (LAR-005/043)

"Arakanatan" koplak abesten du Kresenek. "Arakanatan, akerra dantzan, astoa biolin jotzen, azagarie sueri puzke, erbie urun eraltzen".

34. "Txalo pin txalo" kanta (LAR-005/044)

"Txalo pin txalo, txalo ta txalo, katutxue mismeruen ganean dago; badago bego, bego badago, zapatatxu barriari begira dago!" Mirenek abesten du.

35. "Aitite maletero" kanta (LAR-005/045)

"Aitite maletero, oilanda zalia, pipiak erre dotso muturren puntia". Juanek abesten du eta azalpena ematen.

36. "Larrosatxuak bost orri daukaz" kanta (LAR-005/046)

"Larrosatxuak bost orri daukaz, kabeliñiak hamabi, gure umetxua gure dabenak, eskatu beren amari." (bitan). "Ai nork leukezan urrezko orratzak, urre, mihesa ta harie, urrez hasi te amaituteko, seintxu honentzat jantzie". Umeei kantatzen zieten lepoan hartuta.

37. "Unas canciones nuevas, nahi nuke kantatu" bertsoak (LAR-005/047)

Euskara eta erdara nahasian dituen kopla. "Unas canciones nuevas, nahi nuke kantatu, con la esposa mia zer daten pasatu, con un cortejo viejo niri eskapatu, aquella habra creido ez dala pekatu". "Los dos dicen que beben goizetik gauera, tres cuartillos de vino edanda ohera". Kresenek abesten ditu.

38. "Aitonaren esana" kanta (LAR-005/048)

Mirenek aitag abesten zion kanta abesten du. "Neure semian seme, neure iloba laztana, ezeik ahiztu aitonak irakasten dauskana. Lehenen maitte egik beti, heure jaungoikua, eta honen hurrengo Euzkadi geure ama".

39. "Joxepantoni kolore gorri" kanta (LAR-005/049)

"Joxepantoni kolore gorri, kapitan baten alaba, aitek doterik emon ez arren, bilituko deu senarra. Astelehenian ezkondu eta, martitzenian basora, egueztenian orbelak batu ta eguenian etxera. Barikuen bere solora eta, zapatu iluntzien etxera. Domeka goizian artie garbitu ta hamarretako mezara."

40. "Ez dok hamairu" kanta (LAR-005/050)

"Esaik bat, gure jaune bera dok bat, berak salbeko gaiozak. Esaik bi, Erromako altarak bi, gure jaune bera dok bat, berak salbeko gaiozak. Esaik hiru, hiru trinidadia hiru, Erromako altarak bi, gure jaune bera dok bat, berak salbeko gaiozak. Esaik lau, lau ebanjelistia lau, hiru trinidadia hiru, Erromako altarak bi, gure jaune bera dok bat, berak salbeko gaiozak. Esaik bost, Jesukristoren bost lllagak bost, lau ebanjelistia lau, hiru trinidadia hiru, Erromako altarak bi, gure jaune bera dok bat, berak salbeko gaiozak. Esaik sei, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost lllagak bost, lau ebanjelistia lau, hiru trinidadia hiru, Erromako altarak bi, gure jaune bera dok bat, berak salbeko gaiozak. Esaik zazpi, zazpi sakramentuak, sei... Esaik zortzi, zortzirak dira zeruen, zazpi... Esaik bederatzi, bederatzi ordenamentuek, zortzirak... Esaik hamar, hamar mandamentuek, bederatzi... Esaik hamaika, hamaika mila aingeruek, hamar... Esaik hamabi, hamabi apostoluak, hamaika... Esaik hamairu, hamairu ez dozak hamairu! Oilarrak jo-jo munduan, Jesukristok entregaotzak arime ona zeruan".

41. "Arantzazura" kantaren zati bat (LAR-005/051)

"Rodrigotxu, nora zoiaz zu? Erdu hona ta entzuizu, Egin daizula ermitatxo bat, berak deritxona Arantzazu. Zazpi teilatxu, hiru latatxu, zure aite arotza da ta, egin zaiezu mandatu, egin daiztela ermitatxo bat, berak deritxona Arantzazu."

42. "La rana cantaba debajo del agua" kantaren zati bat (LAR-005/052)

Kantaren zatitxo bat abesten du.

43. "Akerra ikusi degu" kanta (LAR-005/053)

Kantaren zati bat abesten dute.

44. Sutondoko kontuak eta kantuak (LAR-005/054)

Lehenago astia izaten zela dio. Sutondoan denbora asko ematen zutela lehen esaten dute, artoa "garanduten", kantuan, kontu-kontari, irakurtzen...

45. Oraingo umeak baino pozago (LAR-005/055)

Umetan oraingo umeak baino pozago bizi zirela dio Mirenek. Norberak egindako jostailuek ilusioa egiten zieten. Erregeetako opariei buruz berba egiten dute. Anekdota bat kontatzen du.

46. Kristau izaera (LAR-007/001)

Garai berrietako kontuak gogorrak egiten zaizkiela diote. Kristauak izatea da beraien oinarria, maitasuna ematea. Alderdi politikoei kritika egiten diete, desberdinak izatearren muturtuta ibiltzearren. Lehenengo pertsonak direla esaten dute.

47. Eskolan binaka eta kantuz (LAR-007/006)

Eskola zaharretan ibili ziren hasieran, eta gero, kultur etxean. Binaka esertzen ziren. Dena kantuz ikasten zuten. Bakoitzak bere mahaia garbitzen zuen. Neskak eta mutilak banatuta egoten ziren.

48. Eskola nazionala, Elizaldekoa eta Alaiokoa (LAR-007/007)

Beti irakasle erdaldunak izaten zituzten. Maistra euskaldunak oso gutxi zeudela dio Mirenek. Elizaldeko eta Alaioko eskolei buruz berba egiten dute. Eskulan eta marrazki asko egiten zituzten eta erakusketa egiten zuten.

49. Maistra frankista baina ona (LAR-007/008)

Burgosko maistra bati buruzko pasarteak kontatzen ditu Mirenek. Frankoren aldekoa zela diote, baina pertsona ona.

50. Atxilotu asko herrian (LAR-007/010)

Atxilotu asko izan ziren Larrabetzun gerra garaian. Mirenek senarra preso zegoela gertaturiko pasarteak kontatzen du. Lezaman gogorragoa izan zela diote.

51. Burdinazko gerrikoa, alferrik (LAR-007/011)

Larrabetzu trintxeraz beteta egon zen. Gerora denak kendu zituzten. Ingeniariaren traizioa kontatzen du Mirenek. Bizkargin gudariak eusten saiatu zirela dio Mirenek, baina galera handiak izan zituztela.

52. Bonbardaketak zelakoak ziren (LAR-007/012)

Bonbardaketak deskribatzen dituzte: hegazkinak, kazak, hasieran egunez, gero gauez ere bai... Beldurrez egoten ziren. Umeak hartu zituzten etxean.

53. Gerratik ihesi bonbapean (LAR-007/013)

Teresa Zamudiora joan zen, etxekoekin eta beste familia batzuekin. Bonbardaketa handiak zeudenez, gau eta egun babeslekuan pasatzen zuten. Bilbora joan ziren oinez, Atxurira, familiako batengana. Barakaldon trena hartu zuten.

54. Gerrarengatik, simaurraren azpian gordelekua (LAR-007/014)

Miren Deriora joan zen etxekoekin. Kastrejanatik, Ampuero (Kantabria) aldera joan ziren. Handik etxera etorri ziren bueltan. Gurdian janaria eraman zuten, baina simaurraren azpian kaxetan gauza asko gorde zituzten.

55. Gerra aurreko eta ondoko dirua (LAR-007/015)

Gerra aurreko eta ondorengo diruez berba egiten dute: zilarrezko txanponak, diru zaharrak, Euzkadiko dirua...

56. Kantabriara ihesi (LAR-007/016)

Mirenen gurasoak gurdiekin joan ziren Kastrejanatik Santanderrerantz, baina Miren beste hainbatekin trenez joan zen. Orduko pasartea kontaktzen du. Santanderren egon zirenean, etxola batean egon ziren eta hango ugazabari laguntzen aritu ziren. Aita atxilotu zutenekoa kontaktzen du.

57. Ampuerotik etxeratzeko ziurtagiriaren beharra (LAR-007/017)

Ampuerotik (Kantabria) etxeratzeko ziurtagiria behar izan zuten. Errepublikarrak eta abertzaleak denak gorriak zirela diote.

58. Orden publikokoak eta somatenak (LAR-007/019)

Gerra garaian, orden publikokoak egoten ziren herrian. Gerra aurretik somatenak izaten omen ziren.

59. Zoriontasuna, bakoitzak berea (LAR-007/021)

Zoriontsu bizi direla diote. Umeentzat bizimodu zaila dagoela diote. Ama, bizi osoan lan egin arren, zoriontsu bizi izan zela dio. Gizarteari kritika egiten dio Mirenek.

60. "Etxekoandraka", dendatara, "piku-paloetara"... (LAR-007/022)

Umetako jolasak aipatzen dituzte: etxekoandraka, dendatara, harri-lorazkoetara, piku-paloetara...

61. Trapuzko panpinak egiteko modua (LAR-007/023)

Panpinak zelan egiten zituzten azaltzen du Mirenek.

62. Ohezerua eta koltxoi motak (LAR-007/024)

Artoaren zurikinarekin eta artilearekin koltxoiak egiten zituzten. Ohe batzuek ohezerua izaten zuten, ohearen goialdeko estalkia. Nolakoak izaten ziren azaltzen dute.

63. Etxeko paretak, eskailera eta komuna (LAR-007/025)

Teresaren etxean paretak oholezkoak ziren. Eskailera zaharra zeukaten. Pasarte barregarria kontatzen du Teresak. Komuna zelakoa izaten zen kontatzen dute. Pasarte barregarriak kontatzen dituzte.

64. Argindarra, kandelak eta karburoa (LAR-007/026)

Argindarra komutatuta zeukatela dio Teresak. Mirenek berandura arte ez du ezagutu. Kandlekin edo karburoarekin lortzen zuten argia.

65. Dinamita eta otoitzak sorginen kontra (LAR-007/027)

Dinamita sortutakoan, sorginak desagertu zirela diote. Bidegurutzeetan, hiletetan, apaizak aita gurea erreztatzen zuen.

66. Kuarta-denborak interpretatzeko modua (LAR-007/030)

Kuarta-denborak zelan interpretatu azaltzen dute.

67. Artoarekin jolasean (LAR-007/032)

Arto asko ereiten zuten eta haiek zuritutakoan, jolas egiten zuten. Jolasak azaltzen dituzte.

68. Gari-jotea, jai eguna (LAR-007/033)

Artoa eta garia etxe guztietan izaten zen. Gari-joteko eguna jai eguna izaten zen; zelakoa izaten zen eguna eta zelako lanak egiten zituzten kontatzen dute.

69. Soroko lanei buruzko ipuinak (LAR-007/034)

Istorio bat kontatzen du Mirenek, soroetan lanean ibiltzen zirenekoa. Teresak beste bat kontatzen du.

70. Igandeetako plana (LAR-007/037)

Igandeetan meza, errosarioa eta horrelakoak izaten zituzten. Mariaren alabak kongregaziokoak hilean behin batzen ziren. Kartetan ere egiten zuten. Erromeria berandu hasten zela diote.

71. Herriko ospakizunak (LAR-007/038)

San Isidroetan eta San Roketan jai politak izaten ziren. Andramari jaietan aurraskua dantzatzen zuten. Bilbora joaten ziren urtean behin barraketara.

72. Garizuman erromeriarik eta ezkontzarik ez (LAR-007/040)

Bizimodu alaia izan zutela diote. Garizuman ez zen erromeriarik eta ezkontzarik izaten. Mutilek barkilloak erosten zizkieten.

73. Norbait hiltzen zenean (LAR-007/041)

Norbait hiltzen zenean zer egiten zen azaltzen dute: hil aurretik kanpaia jotzen zuten, apaizak txilina jotzen zuen kolean, jendea kandlekin joaten zen, letainak erreztatzen ziren...

74. Ezkongabeen hiletak eta maila ezberdinetakoak (LAR-007/043)

Ezkongabeen hileta zelakoa izaten zen kontatzen dute. Familiaren aurrean gurutzea ipintzen zuten eta muin ematen zitzaion. Maila desberdinetako hiletak izaten ziren. Goizez izaten ziren gehienetan. Gorpua elizpean egoten zen.

75. Lotarako koplak (LAR-007/045)

"Turruku truku truku, ez niri ukutu, ama kamaran dau te sentiduko gaitu. Amoretxo bi dodaz, izen batekoak, bategaz nauanian bestiak zeloak. Txikitxu polit hori, zer dozu negarrez, aitek tabernarako dirurik emon ez. Ababatxue lo ta lo, zuk orain eta nik gero, zeuk gura dozun orduren baten, biok egingo dogu lo".

76. "Goirengo kamarara" koplak (LAR-007/047)

"Goirengo kamarara bidia labana, galdaran sartu jaku neska barrabana". Koplak abesten dute.

77. "Dringilin drangoa" koplak (LAR-007/049)

"Dringilin drangoa ta ez naz ni zoroa, santa Katalinako dendari kojoa". Koplak abesten dute.

78. Besoetan lokartu (LAR-007/051)

Lehen besoetan lokartzen ziren umeak eta gero lagatzen ziren sehaskan.

79. "Pandero barri-barrie" koplak (LAR-007/053)

"Pandero barri-barrie, Durangotik ekarrie, hamar errial pageute, dana da urre gorrie".

80. Txerrien izenak eta haien arteko aldeak (LAR-007/056)

Txerri arrari ordotsa esaten diote eta emeari, "arkelia". Umeetarako erabiltzen den txerri arrari, "apoa". Hiltzerakoan dagoen aldea eta zailtasunak azaltzen dituzte.

81. Berbak transmititzea (LAR-007/057)

Berbak transmititzearen garrantziaz berba egiten dute. Berbak esaten dituzte.

82. Erdara aldrebesean (LAR-007/058)

Erdaraz justuan egiten dutela diote. Teresak pasarte bat kontatzen du, gerra garaikoa. Mirenek ere beste pasarte batzuk kontatzen ditu.

83. Gurdiarekin jolasean (LAR-007/060)

Gurdiarekin egiten den jolasa azaltzen dute.

84. "Ulin dolin tanbolin" zotz egiteko kanta (LAR-007/061)

Zotz egiteko kanta errezitatzen du Mirenek. "Ulin dolin tanbolin, tres y cuatro balentin, erradura, barradura, kris, kraus, fuera!"

85. "Hor zor, hemen zor" zotz egiteko kanta (LAR-007/062)

"Hor zor, hemen zor, giltze galdu jat, giltze topetan nabilela kaderea soldu jat, txakurtxu zurie, esaizu egie, hor edo hemen bolatxu zurie!". Zotz egiteko erabiltzen da.

86. "Una-dona katona" zotz egiteko kanta (LAR-007/063)

"Una-dona katona, sutondoan amona, lepotik behera kutuna, kanpora neska tuntuna". Zotz egiteko erabiltzen da.

87. Urkiolara eskean, ipuina (LAR-007/064)

Urkiolara San Antoniori eskean joan zireneko bi bikoteren kontu barregarria kontatzen du Teresak.

88. Garbantzua hankapean hartuta promesa betetzen, ipuina (LAR-007/066)

Bikote batek promesa egin zueneko pasarte barregarria kontatzen du Mirenek.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-08-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com